


zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26666 - PREZIOA 5 PEZETA

EUSKALERRIAN, EUSKERA DEBEKATUA! ESANAK EDERRAK ETA EGIÑAK POBREA



Pluralismo garaian bizi garala guztiok dakigu. Gizarte, kultura, izkuntza ta erlijio arazoetan pluralismo dalako ori, inoizkorik nabarmenen da. Atzerrikoek diñoena ta agintzen dabena aipatzen ibilli gabe, naikoa dogu gaurkoz emengo gizonak diñoena jakitea: Gotzaiak, «Gaur» informeak... Pluralismo orren izenen eta mesedez gure eskoletan bilinguismo jartzen komeni litzakeala argiro dirauskue. Ba zirudian euskaldunok arnasa artzen asiak giñala apur bat bederen. Emendik aurrera gure etxean nai

eta bear dogun neurrian biziko giñake. Euskeraren etorkizuna ere argitxuago omen egoan. Pedagogia, erlijio, gizarte-zuzentza, gizabidea ta gizatasuna maite ditugunok illun jarri gara Amoroetoko barri jakiaz. Bertatik esatera noa: Amoroetoko maixua —erdalduna, jakia— errira etorri, erritarren izerditi jaten eta erritarren irakasgarri billakatzen datorrenak, geure ta mundutar ororen eskubideak zelangura zapaltzen diardu. Umeak, ikastola-barruan edo jolas-aldian edo jan-tokian euskeraz egin ezker,

bosteun bider «NO SE HABLA EN VASCO» idazteko agintzen dautsue zigortzat. Or duzue, fotokopia orretan, Amoroetoko aur gizajo batek egiñeko obenaren zigor zati bat.

Tamalgarría litzake onelako egoera luzarora. Horacio Santiago Romero, Zamorako semea: Egizu aproba zure burua piska bat aztertzen eta ia, urregorako, pedagogi ta esker onaren legeak kontuan artu ta zuk, umeak euskeraz diarduela entzutean, zeure buruari zigorren bat ipintzen deutozun.

JUAN ANJEL ETXEBERRIA